

## HITZAREN ESKOLA / IRAKASLEEN FITXA

**IRAKASLEA:** Harkaitz Cano

**DATA:** 2019ko

**AZALPENA:** Hitzaren unitate minimotik abiatuz (berba bakana eta bakuna) hitzak jenero ezberdinetan izan litzakeen ñabardura eta berezitasunak aletzea, paperaren gaineko testu idatziaz haratago bere funtzionalitatea eta potentzialitate performatiboa aztertuz: kantugintza, gidoigintza, hitzaren eta irudiaren arteko harremana nahiz ikus-entzunezkoetan duen pisu espezifiko ezberdina. Idazten abiatzeko estrategiak. Idazketa literarioan sartu-irten azkarra zenbait ipuinen azterketaren bitartez.

### AURKIBIDEA (saioen eskema laburra)

**1. Saioa.**

*Naming.* Hitzaren unitate minimoa. Izendatzearen artea, berrizendatzeko beharra.

**2. Saioa**

Izendatzea, alderdi praktikoa.

**3. Saioa**

Kantatzeko idatzi. Zerk egiten du kantu bat gogoangarri?

**4. Saioa**

Hitza eta irudiaren arteko harremana. Sekuentziarioa. Album ilustratuaren adibidea.

**5. Saioa**

Ikus-entzunezko euskal fikzio zentzuzko baten bila.

**6. Saioa**

Gidoigintza nozioak eta ariketa praktikoa.

**7. Saioa**

Idazketa literarioa. Narratiba estrategiak. Ipuin laburrean bereziki arreta jarritz.

**8. Saioa**

Antton Olariagarekin saio irekia: irudi alfabetizazioa

**1. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Euskal Herrian dugun herrenetako bat: produktuak, markak, telebista saioak eta oro har bestelakoak izendatzeko ditugun zailtasunak edo urte luzez pilatutako zabarkeriaren ondorioak nozitu beharra. Gure egunerokoa hiztegietan agertzen ez diren neologismoz eta markaz beteta dago, eta modu akritiko eta inozentean irensten ditugu denak, horien atzean intentzio bat eta ideologia bat dagoela ahaztuta (kartelak, errotuluak, elikadura produktuen izenak, negoziokoak...).

Oharkabean marka komertzialen artean dauden hitzak, itzultzen ez direnak, hizkuntza ezberdinak nahastuz sortzen direnak, publizitate esloganak... aztertzea da helburua, eta hitz horiek sortzeko erabili diren estrategiei behatzea. Nazioarteko marka eta joerak izendatzeko erabili izan diren ereduak aztertu eta gureak haiekin konparatzea.

Zein estrategia erabil liteke produktu bat izendatzeko? Jenerikoa hautatzea, akats ortografiko bat nahita egitea, polisemia, hitzen elkarketa, jostagarritasuna, onomatopeia... Saio teorikoa.

**2. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Lehen saioko azterketa teorikoaren ondotik, ikasleei "berrizendatze" ariketa praktikoa bat proposatzen zaie, euskaraz ez dauden baina euskaldunok erabili ohi ditugun produktu eta markak euskalduntzekoa, edo berdina, euskaraz jada izendatuak egon arren komertzialki eskas edo lotsaemangarri direnen kasuan. Zein izen jarriko zenikete interneteko bilatzaile bati, airbnb bezalako zerbitzu bati...?

Euskal Herrian euskal- aurrizkiari jarraiki egin den produktuen izendapen sistematiko deitoragarriaren irakurketa kritiko bat ere proposatzen da, berrizendatzearen zati bat horri eskainiz. Euskaltel da euskal telefono konpainia batentzako izenik aproposena?

**3. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak,

erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Ingelesez, euskaraz zein gaztelaniaz sortutako kantu arrakastatsuen analisia. Zer da inportantea kantu batean? Hitzak zein funtzio betetzen du? Zenbateraino dago mezua hoskidetasun atseginen zerbitzura? Zein da melodiarekin duen harremana? Ze ezberdintasun dago poema baten eta kantu-letra baten artean? Zer gertatzen da erritmoaren auziarekin? Edozer kontu daiteke kantu baten bitartez? Zertarako da eraginkor jenero hau eta zertarako ez? Nola sortu ereserki bat?

Kantuak gogoangarri izateko idazten dira; lehen entzunalditik gustuko izan daitezen ere bai. Baina, aldi berean, kantu gogoangarrienak haiek mila bider entzunda sekula aspertzen ez gaituztenak dira. Nola lortzen dira bi helburuak aldi berean? Arintasunaz, erraztasunaz eta sakontasunaz hausnartu.

Ingelesetik euskarara kantu bat egokitzean sortzen diren zailtasunak eta hizkuntza bakoitzaren ezaugarri morfologikoen mugak eta abantailak.

**4. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Ariketa bikoitza proposatzen zaie ikasleei: gustuko kantu bat ekar dezaten binaka. Aldi berean, bikote bakoitzak ekar dezala kantu bat bietako baten gustukoa dena, baina besteari sobera gustatzen ez zaiona. Eztabaidaren zati bat etxetik eginda dakartenez, kantu bakoitzaren ahulguneak eta abantailak aztertzen saiatu gara, bereziki hitzen letran arreta jarrita. Denok buruz ezagutu bai baina erabat ulertzen ez ditugun letren xarma.

Proposamena: Billie Holidayren "Strange Fruit"

**5. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Liburu ilustratua. Haurrei begirakoa nagusi den arren gure artean, Europako herrialde zibilizatuetan helduentzako albumak ere pentsatu eta idazten dira. Adibide praktikoak landu dira, Wolf Erlbruch eta Jutta Bauer bezalako egileenak. Heriotza edo tratu txarrak bezalako gai potoloak publiko gazteenari helarazteko formula poetikoak landu dira, modu praktiko batean. Zein hizkuntz erregistro erabili hurrekin eta zein helduekin. Zein da aldea? Badago batere?

Album ilustratuen adibideei jarraiki, modu praktikoan sekuentziazioa landu da: hitzak nola egokitu album baterako irudi jakinetara, zein une da aukeratu behar dena testuari lagundu diezaion elkarri trabarik egin gabe? Baita ere, irudi batzuetatik abiatuz nola testu bat asmatu, edo are, irudien bidez istorio bat nola kontatu modu berean paraleloki beste bat hitzez narratzen den bitartean. Nola lortu irudiak eta hitzak aliantza perfektua izan daitezen elkar elikatuz elkarri enbarazurik egin gabe.

*Aplastamiento de las gotas* (Elena Odriozolak ilustratutako Julio Cortazarren poema). Odriozolaren lana erakutsi aurretik ikasleei proposatzen zaie irudi horietatik abiatuz zein istorio idatziko luketen haiek.

Pertsonaien eraikuntza. Euskal iruditeriako pertsonaia gogoangarriak zeintzu dira? Ez ote dugu gabeziarik horretan? Zakilixut, Xabinaitor... Eta zein gehiago? Zein dira gure Ahab kapitaina, Moby Dick, Sherlock Holmes, On Quixote, Asterix eta Obelix? Eta emakumezko pertsonaia gogoangarriak? Zeintzu bururatzen zaizkigu gure iruditerian? Eta literatura unibertsalean?

Zerk egiten du arketipo bat gogoangarri?

Idazteko abiapuntuak: fetitxeak. Nork berea ekartzeko proposatzen da datorren asterako. Adibide praktikoak: Juan Luis Panerok bereak erakusten dituenekoa "El desencanto" filmean.

**6. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Aurreko saioko ariketaren erresoluzio praktikoa: ekarritako objektuak norberak azaldu beharrean, ondoko lagunari ematen zaizkio hark espekulazio ariketa egin dezan. Gero, objektua ekarri duenak bere benetako arrazoiak kontatzen ditu.

Gidoigintza nozio batzuk zine eta telebistarako. Hitzen "pisu atomikoa" oso ezberdina da ikus-entzunekoetan edo nobela batean. Are, ezberdina da zineman edo antzerkian. Alfonso Sastre "parlatura" zeritzon hura.

Hitza garrantzitsua den sekuentzia bat ikusi dugu *Hunger* pelikulan: kartzelako bisean bisekoa, Bobby Sands eta apezaren artekoa. Aldi berean, *The Wire* teleaileko sekuentzia mutu bat, non hitzik ez den behar eta murduskatzea garrantzitsuagoa den esanahia baino. Bi muturretako adibideak: hitzaren gainean oinarrituta eszena vs. hitzik behar ez duena.

Askotan ahaztu ohi dugu: hitza ekintza da. Hitza munizioa da.

Ariketa praktikoa: binaka gidoi edo telesail baten izenburua eta garapena + pertsonaiak proposatzeko datorren asterako. Pitching edo proiektuaren defentsa/salmenta bat egingo dute gero, guztion aurrean.

Telesail batek behar ditu: hiri bat + gaitegi bat + pertsonaia sail bat + harreman sare bat. Horren diseinua eskatu zaie.

**7. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Aurreko astean planteatutako ariketaren aurkezpena eta eztabaida, lehenik.

Gero, alderdi literariora txango: film baten hasieran offeko ahots batek esanik ongi geratuko litzatekeen poema edo testu literario bat eskatu zaie. Testu literario hori bozgora irakurri eta zein irudi legokiokeen hitz egin da. John Huston-en "The Dead" filmaren amaierako Joycen testua ekarri da adibide gisa.

Ipuin laburrak irakurri eta aztertu dira:

Shirley Jackson, "Loteria"  
Slawomir Mrozek, "Museoa"

Iruzkin kritikoa. Narrazio garaikidean garrantzia duten nozioak: tentsioa, ironia, estereotipoen kontrako borroka...

Amaieren anatomia baterako. Nola amaitzen da istorio on bat? Zeintzu dira ikasleek gogoan dituzten amaiera onak, nobela edo filmenak?

Hainbat kasu, hainbat estrategia: *Smoke*, *The Usual Suspects*, *Los Soprano*...

**8. SAIOA** (saio honetan landutakoaren azalpena; helburuak, gaiak, ariketak, irakurketak, erabilitako materiala... orri bat gehienez).

Antton Olariaga gonbidatuaren bisita: Zakilixuten pertsonaiak ezagun egin du, baina ehunka liburu azal ere egin izan ditu. Aldizkari zaharren bildumatzaile amorratua ere bada. Letrak eta hitzak irakurtzen badakigu, baina irudiak? Alfabetatuta ote gaude ala irense bulimikoak besterik gara? Hortik abiatuta, letra tipoez, koloreen erabileraz, espazioen dispozizioaz etab. jardun du Olariagak, bai eta umorea egiteko modu ezberdinez ere.

Publizitatea ere aletu du, lehen eguneko saiora itzuliz eta zirkulua osatuz. Saio praktikoa, teorikoaren jarraipen bat izan da. Bere ibilbide profesional pertsonala txandakatuz joan da orotariko gustuko ereduekin.

**BIBLIOGRAFIA ETA ITURRIAK** (erabilitako liburu, pelikula, artelan eta bestelako artefaktuak; egile eta iturri nagusien erreferentziak eta estekak)

Liburuak:

*El guión*, Robert MacKee

*El pato y la muerte*, Wolf Erlbrug

*Limonade*, Jutta Bauer

*La lotería*, Shirley Jackson (euskaraz: <https://ekarriak.armiarma.eus/zizkak/?shirleyjackson>)

*El árbol*, Slawomir Mrozek

*Aplastamiento de los gotas*, Julio Cortázar/Elena Odriozola

[https://www.youtube.com/watch?v=YieOtk\\_ul\\_g](https://www.youtube.com/watch?v=YieOtk_ul_g)

Filmak:

*El desencanto*, Jaime Chávarri

[https://www.youtube.com/watch?v=eltr\\_lyJLAY](https://www.youtube.com/watch?v=eltr_lyJLAY)

*Smoke*, Wayne Wang/Paul Auster

[https://www.youtube.com/watch?v=\\_kCUbw8Ug28](https://www.youtube.com/watch?v=_kCUbw8Ug28)

*The Usual Suspects*, Bryan Singer

<https://www.youtube.com/watch?v=4OAFtr-ciQE>

*The Sopranos*, David Chase

<https://www.youtube.com/watch?v=1x9YACdBUrU>

*Hunger*, Steve McQueen

[https://www.youtube.com/watch?v=aycGYu\\_8Hhw](https://www.youtube.com/watch?v=aycGYu_8Hhw)

*The Dead*, John Huston

<https://www.youtube.com/watch?v=PXHHHdrc-Q8>